

2026ko BASERRI EGUNEAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. HELBURUA

Markina-Xemeingo Udala osatzen duten alde ezberdinek argi dute lehen sektorearen garrantzia orokorrean eta gure eskualdean bereziki. Horrela, garrantzi berezia hartzen dute berau sustatzeko ekintzek zein nola azokek, hauek duten garrantziagatik ekonomiarentzat, nekazaritza dibertsitatearentzat, ingurumenarekiko errespetuarentzat eta kontsumo jasangarriarentzat.

Landa eremuaren garapena helburu izanik, oinarritzkoa da ustiategi txikien bidez produkzio tradizionalaren eredua mantentzea eta berau herritarrengana hurbiltzeko ekimenak aurrera eramatea, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko topaketa eta salmenta gunek bat sor dadin, azken hauek, bertan ekoiztutako elikagaien balioaz jabetzeko. Azokak, zein bestelako ekimenak, funtsezko dira sektore honen bideragarritasuna bermatzeko.

2. APLIKATZEKO EREMUA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak bere 17. artikuluan dioenez, udalek hainbat esparrutan eskuduntza propioak erabili ahal izango dituzte, eta horietako batzuk harreman zuzena dute udalen toki publikoetan jarduerak egiteko kontuan hartu beharreko antolatze lanekin. Horien artean, hauek nabarmenduko ditugu:

- Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
- Establezimendu publikoak eta jolas jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Barne merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

Horretaz, oinarri hauek, Markina-Xemeingo Udalak, 2026ko maiatzaren 9an antolatuko duen Baserri Eguneko azokarako aplikatuko dira. Azokaren ordutegia 10:00etatik 14.00ak arte izango da.

Azokarako jarriko diren 18 postuetan (BBK-k utzitako etxolak) saldu ahal izateko, aurrez eskaria egin ostean, udalaren baimena duenak izango du aukera. Partehartzaile bakoitzarentzat postu kopurua

antolatzaileek erabakiko dute, jasotako eskari kopurua eta postu kopuruaren, zein lekuaren arabera. Halaber, antolatzaileek erabakiko dute bakoitzaren kokalekua. Azokan parte hartzen duten postuek ez dute lurraren erabileraren truke inolako tasarik ordaindu beharko.

3. ANIMALIAK

Animalien kasuan, herriko animaliek lehentasuna izango dute. Hala ere, herritarra den abeltzain batek bere ustategia beste herri batean kokatuta baldin badu, parte hartzeko aukera izango du, baldin eta, ustategia kokatuta dagoen herrian bertan beste animaliadun azokarik egiten ez bada.

Parte hartu nahi duten abeltzainek euren eskari orria aurkeztu beharko dute dagokien dokumentazioarekin.

Animaliak dakartzatenek dietak jasoko dituzte:

- 6 hilabetetik gorako zaldiak eta behorrak: 85 euro buruko. Abeltzain bakoitzak gehienez 4 buruko dieta kobratuko du.
- 6 hilabetetik gorako asto, mando, pottoka eta poniak: 75 euro buruko. Abeltzain bakoitzak gehienez 4 buruko dieta kobratuko du.
- 6 hilabetetik gorako ardi eta ahuntzak: 120 euro loteko (lotea: 7 eme + 1 ar). Abeltzain bakoitzak gehienez lote bat kobratuko du.
- Txerriak: 75 euro aldrako (aldrak: ama eta kumeak) edo (txerri arrak eta emeak). Abeltzain bakoitzak gehienez lote bat kobratuko du.

Euskal arrazako etxe abereak:

- 6 hilabetetik gorako asto eta pottokak: 85 euro buruko. Abeltzain bakoitzak gehienez 4 buruko dieta kobratuko du.
- Ardiak: 150 euro loteko (lotea: 5 eme eta 1 ar). Abeltzain bakoitzak gehienez lote bat kobratuko du.
- Ahuntzak: 150 euro loteko (lote bakoitza 5 ahuntz eta akerra). Abeltzain bakoitzak gehienez lote bat kobratuko du.
- Oilo, antzar: 60 euro lotea. (lote bakoitza bi bikote, bina eme eta ar). Abeltzain bakoitzak gehienez bi lote kobratuko ditu.
- Untxiak: 60 euro lotea. (Lote bakoitza 2 bikote, bina eme eta ar) Abeltzain bakoitzak gehienez bi lote kobratuko ditu.

Animalien dieten kasuetan garraioa sartuta dago, hots, norberak egin behar du. Egin beharreko analisiak aldiz, antolakuntzaren kontura izango dira eta koordinazioa ere antolakuntzatik egingo da.

Erakusketan parte hartzen duten behi, txahal, idi zein zaldi, behor, mando, asto eta poniak sokan lotuta egon beharko dira derrigorrez. Jendeak ikusteko moduan egon beharko dira 10:00etatik 14:00ak arte. Osasun gaietan indarrean dauden arauak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintzako zerbitzuak eskatzen dituen arauak bete beharko dituzte.

Arau hauek ez betetzeak dietak jasotzeko eskubide gabe geratzea ekarriko du, antolatzaileen esku geratzen da dietak eman barik uzteko eskubidea, erabaki honen aurka ez da helegiterik onartuko.

Animalien jabe bakoitzak nahi beste animalia ekar ditzake baina, abere klase bakoitzeko gehienez 4 bururen dietak kobratuko ditu eta loteka banatzen diren kasuetan lote bakarrari dagozkion dietak.

Dokumentazioa aurkezteko lekua eta epea:

Abeltzainek euren ganaduak azokara ekarri ahal izateko beharrezko dokumentazioa aurkeztuko dute Lea Artibaiko Landagarapen Alkarteko bulegoan (Xemein etorbidea 12A, 1.go solairuan) edo imendizabal@leartibaifundazioa.eus helbide elektronikoan martxoaren 16tik 27ra (biak barne).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Animalien banan banakako identifikazio ofizialaren fotokopia
- Bankuko kontu korronte zenbakia
- Ustiapen txartelaren fotokopia.
- Ustiapeneko jabearen NANaren fotokopia.
- Azoka egunean Jatorri eta Osasun Agiria (Guía de Origen y Sanidad pecuaria)
- Urteko analisiak (behi eta ardietan).
- Dagozkion bestelako analisiak (IBR) aurkeztu beharko da, BFAtik hala eskatzen den kasuetan.
- Zaldien kasuan, zaldijendea identifikatzeko liburua.

Antolakuntzak goian aipatutako animaliez gain, herrian dauden edo eta herrian ez dauden bestelako animaliak ekartzeko aukera aztertu ahal izango du, beti ere, azokan animalia klase gehiago erakusteko helburuarekin.

4. BAIMENTZEN DIREN PRODUKTU ETA POSTUAK - EKOIZLEAK

Gure nekazaritzako eta, Baserri Eguneko protagonista den bildotsaren inguruan, adierazgarri diren produktuak lehenetsiko dira, guztira 18 postu izanik, produktu mota bakoitzerako mahai kopuru muga hauek ezarriko dira:

Produktu mota	Postuen kopurua
Okintza eta gozogintza	4
Txakolina, sagardoa eta zukuak	2
Esnea eta esnekiak	4
Eztia	1
Kontserbak	1
Ahatekiak	1
Ortuari eta frutak	2
Haragikiak	2
Beste produktu batzuk	1

Era berean, atalaren edo produktu motaren arabera baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen kopurua aurreikusitakotik beherakoa bada, antolakuntzak eskubidea izango du beste ataletan emandako postuen kopurua handitzeko edo ezarritako baldintzak betetzen dituzten baina eskaera ezarritako epean aurkeztu ez duten beste produktore eta/edo egile batzuk gonbidatu ahal izateko.

Ekoizle bakoitzak 1 edo 2 mahai eskatu ahal izango ditu eta jasotako eskari guztiak aztertu ostean antolatzaileek erabakiko dute eskatutako beste mahai edo gutxiago esleitu.

Postuen kokapena antolatzaileak erabakiko du produktu mota, okupatzen duten espazioa eta momentuko egoeraren baldintzen arabera, beti ere aukeren berdintasuneko irizpidea kontuan hartuko delarik.

5. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Baldintza orokorrak:

- Baimenduta egongo diren produktuak izango dira osasuneko arriskurik sortzen ez dutenak, berezko autoritateen iritziz, eta noizbehinkako kaleko salmentarako indarrean dauden araudiak debekatzen ez dituztenak.
- 51/2024 DEKRETUA, apirilaren 30ekoa, hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzkoa.
- Legez eta araututa dauden bestelako baldintza guztiak bete beharko dira.
- Autonomo, mikroenpresa edo enpresa txiki izatea Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako irizpideak jarraituz.

Baldintza espezifikak:

- Udal baimena izatea.
- Salgai jartzen diren produktuak norberak ekoiztuta izan behar dira. Ez da birsalmenta onartzen.**

- Bere jarduera ekonomikoagatik dagozkion jarduera ekonomikoko epigrafean eta gizarte segurantzaren alta emanda egotea eta ordainketetan egunean egotea.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera nekazaritza eta abeltzaintzako sailak dauzkaten erroldetan alta emanda egotea.

JARDUERA	REGEPA	REGA	RGSEAA	REACAV	RIAA ¹
EKOIZPEN PRIMARIOA					
Landare jatorria	X				
Animalia jatorria		X			
ERAGIKETA LOTUAK ²					
Landare jatorria	X				X
Animalia jatorria		X			X
TRANSFORMAZIOA ³					
Konbentzionala			X		X
Malgutua ⁴				X	X
(1) Azoka edo feria ekoizpenaren tokiko inguruko eremuan bada, ez da RIAAn inskribatu beharko. Industria agraria y alimentaria: Instalaciones capaz de funcionar como empresa autonoma cuyos productos no sean comercializados exclusivamente al consumidor final ni a mercados de la propia localidad. (2) Landareak: adib. Ekoizpen lekuak landareak sailkatzea eta ontziratzea Animaliak: adib. Erlezainaren instalazioen barruan eztia ontziratzea (3) Transformazio jardueraz gain, ekoizleak ekoitzi ere giten badu, REGAn edo REGEPA ere egongo da, bietatik dagokionean. (4) EAEko malgutzearen barne badago.					

- Merkaturatzen dituen produktuen arabera berezko araudiak ezartzen dituen baldintza higieniko sanitarioak eta bestelakoak betetzea.
- Ekimena gauzatzen den egunean salmenta justifikatzen duen agiria jaurtitzeko gaitasuna (salmentako agiria edo tiketa).
- Ontziratutako produktuen kasuan ustiakuntza edo eraldatzeko zentroaren kodearekin identifikatzea.
- Salduko diren produktuak arautzen dituzten baldintza higieniko sanitarioak eta bestelako arauak (mantenimendu, garraio eta manipulatzekoak besteak beste) ezagutu eta betetzen dituela aitortzea bere erantzukizun bakarraren pean.
- Ekoizleen postuetan jartzen diren komunikazio euskarriek euskararen erabilera bermatu behar dute. Ekoizleak horretarako gaitasunik ez duen kasuetan, udaleko laguntza jaso ahal izango du puntu hau betetzeko.
- Postuen kokapena antolatzaileak erabakiko du produktu mota, okupatzen duten espazioa eta momentuko egoera eta baldintzen arabera, beti ere aukeren berdintasuneko irizpidea kontuan hartuko delarik.

6. BAIMEN – ESKARI PROZEDURA ETA DOKUMENTAZIOA - EKOIZLEAK

Baimena eskatzeko **eskaera-orria** aurkeztu beharko dute interesdunek, eskakizun horretan, **Erantzukizunpeko Adierazpena** sinatu beharko du interesdunak, oinarriak irakurri dituela eta hauek betetzen eta onartzen dituela adieraziz.

Dokumentazio guztia Lea Artibaiko Landagarapeneko bulegoan edo imendizabal@leartibaifundazioa.eus helbide elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko da.

Eskariak egiteko epea martxoaren 16tik 27ra izango da.

Behin eskakizunak jaso ostean udalaren eskumena daukan organoak ebatziko du baimena ematea edo ukatzea. Erabaki hau hartzeko udalak, horrela uste badu, beharrezkoak ikusten dituen txostenak eskatu ahal izango dizkio egoki irizten dien entitateei.

Udal ebazpena (aldekoa zein kontrakoa izan) interesdunei komunikatuko zaie.

7. POSTUAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Lehentasunak erabakitzeko eta eragileak esleitzeko momentuetarako ondoko irizpideak erabiliko ditu Markina-Xemeingo udalak, gehienez 27,5 puntu lortu daitezkeelarik. Produktu mota baterako puntuazio berdina lortuz gero, produktu mota bereko postuen arteko zozketa bidez esleituko da postua.

- Titulu nagusiko baserritarra izatea: 10 puntu (ATP dela ziurtatzen duen orria aurkeztu beharra)
- Titularra emakumezkoa izatea (sozietatea den kasuetan bazkideen artean emakumezko kopuruaren arabera proportzioan emango dira puntuak): 5 puntu
- Elaboratutako salgaien kasuan, nork bere etxaldean sortutako lehengaiak erabiltzeagatik: 5 puntu.
- Elaboratutako salgaien kasuan baimendutako instalazio propioak dauzkaten ustategia: 5 puntu
- Ingurumenarekiko jasagarritasun irizpideak:
 - Produktuak garraiatzeko ibilgailu elektriko edo hibridoa erabiltzea: 2,5 puntu
 - Jasagarritasuna eta kutsadura ekiditeko helburuarekin, ekimena egingo den puntutik produktuaren jatorria daukan zentrorainoko 1 kmko distantzia bakoitzagatik (beti ere errepide-saretik neurtua): minus puntu 0,1. Gehienez 10 puntu kendu daitezkeelarik

Izen emate orria egoki bete eta sinatuta entregatzeaz gain, puntuatuko diren irizpideak betetzen direla erakusten duten dokumentuak bidali beharko dira. Eguneratutako dokumentazioa epe barruan jaso ezean, irizpideak ez betetze bezala hartuko dira.

Aurreko balorazio irizpideen emaitzatik puntuazioan berdinketa emanez gero bi eskatzaile edo gehiagoren artean, berdindutako eskatzaileen artean esleipenduna zozketa bidez aukeratua izango da.

7. SALTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

7.1. Eskubideak

Salmenta egiteko udal baimena jasoko duten pertsonak ondoko eskubideak dauzkate:

- Baimendutako salmenta-postuak betetzea.
- Jendaurrean eta modu baketsuan jardutea, ezarritako ordutegian eta baldintzetan.
- Tokiko agintarien babesa jasotzea.
- Azokaren funtzionamendua hobetzeko egoki deritzen erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu
- Baimenaren titularraren identifikazio-txartela jasotzea, baimenaren funtsezko datuak adierazten dituenak.
- Merkatua bertan behera geldituz gero, baimenaren titularrak lehentasun-eskubidea izango du ordeko merkatuan baldin eta antolatzen bada.

7.2. Betebeharrak

Salmenta egiteko udal baimena jasoko duten pertsonak ondoko betebeharrak dauzkate:

- Ekoizle bakoitzak bere produktua baino ezin izango du saldu, bere ustategian edo baimen sanitarioa daukan establezimendu baten ekoiztutakoak izan behar dute.
- Saltzaile bakoitza produktu motagatik aukeratua izan denez, produktu horiek bakarrik ahal izango ditu saldu.
- Egokitu zaion postua eta espazioa baino ez okupatu.
- Emandako identifikazioaren euskarriak edonork ondo ikusteko moduan edukitzea, bai kontsumitzaile zein udal agintaritzarentzat. Betebehar hau ez betetzeak postuaren altxatzea erakarri dezake eta baita ere, horrela badagokio, zigorra ezartzeko espediente hastera.
- Ekoizle bakoitzak publikoari begira jartzen dituen komunikazio euskarrietan euskara bermatu behar du. Horretarako gaitasunik ez duen kasuetarako udaleko laguntza teknikoa eskatu ahal izango da.
- Momentu guztietan indarrean dagoen araudia errespetatu.

- Merkaturatzen diren produktuen informazioa eta euren prezioak, eta ekoizleak identifikatzeko kontsumitzaileak behar duen informazioa ondo ikusteko moduan eduki denbora guztian. Produktuen prezioak argi eta errakuntzara ez eroateko moduan egongo dira kartel edo etiketen bidez.
- Saltzaileen ibilgailuak ezarritako lekuetan aparkatuko dira.
- Erreklamazio orriak eskuragarri edukiko dituzte eta hori adierazten duen orria ikusgai.
- Eskaintzen dituzten produktuak neurtu edo pisatzeko araututako baskula edo neurgailua eduki.
- Hotza eskatzen duten produktuak egokiak diren hozkailuetan gordeko dira eta egoki dagokion tenperaturan, bai salmenta unean eta baita garraioan ere.
- Ezin dira elikagaiak eta euren kutxak lurrarekin kontaktuan izan.
- Salmentako agiria emateko beharrezana daukate.
- Sortutako hondakinak biltzen joango dira eta salmentako ordutegia amaitzen denean prestatutako puntuetara eramango dira eta postua eta bere ingurua txukun utzi beharko ditu.
- Hasteko eta amaitzeko ordutegia errespetatuko da eta bitartean ezin izango da ibilgailurik salmenta esparruan sartu.
- Ekimenak irauten duen artean derrigorrean bete beharko dira begirune, txukuntasun eta garbitasun baldintzak. Saltzen dagoenak garbi egon behar du, baita ere aldean daramatzan arropak eta jarduerarako behar dituen tresnak.
- Produktua zatitzea baimenduta dagoen kasuetan derrigorrezkoa izango da salmenta-puntu horretan edangarria den ura egotea. Posiblea dute txorrodun ur-biltegiak, xaboi likidoa eta paperezko erabilera bakarreko zapiak edukitzea.
- Ontziratu gabeko produktuak produzitzen dituzten ekoizle guztiek eduki beharko dute Elikadura Higiene arloko Prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen Norbanako Ziurtagiria eguneratua, ortuari eta fruta kasuak ezean.
- Elikagaiak ondo ordenatuta jarriko dira ikusgai, sailkatuta eta banan, bakoitzak bere ezaugarri bereziei eusteko eta usainak, zapore arraroak eta kutsadura ekiditeko
- Azoka amaitzen denean, salmenta-postua eta ingurua garbi eta txukun utzi beharko dute. Zoladurari, arbolei edo jabetza publikoko ondasunei kalteren bat eraginez gero eurek izango dira kalteak konpontzearen erantzule. Horretaz gain, euren jardueraren ondorioz hirugarren bateri edo batzuei kalte edo galeraren bat sortuz gero (pertsonei edo euren ondasunei) kalte edo galera horien erantzule be izango dira. Beraz dagokien erantzun zibileko aseguruia eduki (eta hori horrela dela egiaztatu) beharko dute.
- Etorkizunean indarrean egon daitezkeen araudiak betetzeko betebeharra, nahiz eta araudi honetan jaso barik egon.
- Ekoizpen zentroak ikuskatuak izateko erraztasunak eman.

8. ZIGORTZEKO ERREGIMENA

Udalak zainduko du araudi honetan jasotako betebeharrak betetzea.

Bere eskumenen arabera udalak produktuak eta postuak ikuskatu ahal izango ditu eta horiei buruzko informazioa eskatu.

Saltzeko ipintzen diren produktuak osasun edo segurtasunerako arriskua ekarri badezakete, iruzurrekoak badira, faltsuak badira, identifikatu barik badaude edo saltzeko gutxienekoak ez badira betetzen espedientea zabaltzea erakarri dezakete eta produktuak inkautatzea ere bai.

Beste entitate eta instituzioek dauzkaten zigortzeko eskumenetatik aparte agirian gelditzen diren faltak udalak zigortu ahal izango ditu, araudi honek ezartzen duenaren arabera.

Indarrean dagoen prozedura administratiboak arautzen du zigorrak ezartzea eta errekurtsuak ipintzea ere bai.

Udal baimena daukaten titularrak dira bere postuak okupatzen duten kideen falta eta arau ez betetzearen erantzuleak

8.1. Arauak ez betetzea

Ez betetzeak arinak eta larriak ahal dira izan

- Arinak: araudi honetan jasotako baldintzak ez betetzea baina kontsumitzaileentzat kalte ekonomiko edo osasuneko eraginik ez daukatenak
- Larriak:
 - Arau hauste sanitario larriak eta pertsonen osasuna arriskuan ipintzen dituztenak.
 - Kontsumitzaileei eragin larriak sortzen dizkienak
 - Ordena ekonomikoa apurtzen dutenak

8.2. Zigorrak

Arau hauste arinak: Abisua edota 1.500 €tarainoko isuna

Arau hauste larriak: 9.000 €tarainoko isuna edota hurrengo 4 ekimenetan berriro parte hartzeko eskubidea galtzea

Espediente ebatzi behar duenak produktuen inkautazioa ere erabaki dezake, faltsuak izateagatik edota identifikazio barik egoteagatik

Markina-Xemeinen, 2026eko martxoaren 12an



Iratxe Lasa Arana

Alkatea